

2005EKO OTSAILAREN 9KO **TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bosteko otsailaren bederatzian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Inazio Estensoro Eskisabel, Xanet Barreras Jauregi eta Arantxa Zumelaga Agirre.

Igor Sarriegi Zumarraga zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurutuzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2005eko urtarilaren 12an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren, 2004ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 14 zbk.dun fakturen zerrenda, LAUROGEITA BAT MILA ZAZPIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMAZAZPI EURO ETA BERROGEITA HAMAZAZPI ZENTIMO (81.777,57 €)koa, eta 2005eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 1 zbk.dun fakturen zerrenda, HIRUROGEITA HEMEZORTZI MILA ETA BERROGEITA BOST EURO ETA LAUROGEITA HAMABOST ZENTIMO (78.055,95 €)koa, beraien espedientetan jasotzen direnak, onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- MIKELAR KALEKO BIRRURBANIZAZIO LANEN 3. ZERTIFIKAZIOA.-

Mikelar Kaleko Birrurbanizazio Lanen obra zuzendaritzak lan hauen 3. zertifikazioa luzatu du. Zertifikazio honen zenbatekoa hogeita hemezortzi mila zortziehun eta hogeita hamabost euro eta berrogeita hamazazpi zentimotakoa (38.835,57,- €) da.

Lan hauen obra zuzendaritza udal teknikariak berak daramanez, bere oniritzia badute.

Honen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako guztien adostasunarekin, zertifikazio hau onartzea erabakitzen du.

IV.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxez-Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 161 zbk.dun esped.: heriotzagatik baja ematea 2005eko urtarrilaren 19an.
- 207 zbk.dun esped.: bere osasun egoeraren hobekuntza dela eta, zerbitzutik baja ematea 2005eko otsailaren 7an.
- 718 zbk.dun esped.: zaharren egoitzan sartu izanagatik zerbitzutik baja ematea 2005eko urtarrilaren 17an.

Telealarma zerbitzua.-

- 718 zbk.dun esped.: zaharren egoitzan sartu izanagatik zerbitzutik baja ematea 2005eko urtarrilaren 17an.

Hezkuntza esku-hartze familiarra.-

- 337 zbk.dun esped.: hezkuntza esku-hartze familiarra 6 hilabetez luzatzea. Esku-hartze honen aurrekontua 2.929 euroakoa da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

Lehendik ematen ari diren laguntzen luzapen hauek onartzen dira:

- 700 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimenduko gastuetarako hilean 90,17 € ematea, urtariletik abendura, ekainean berraztertuz. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 198 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren alokairua ordaintzeko hilean 1,02 € ematea, urtariletik abendura, ekainean berraztertuz. Etxebizitzaren mantenimenduko gastuetarako hilean 46,23 € ematea, urtariletik abendura, ekainean berraztertuz. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da. Arautegian egon diren aldaketak direla eta, % 100a alokairu prezioaren %70ari dagokio.
- 120 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimenduko gastuetarako hilean 70,19 € ematea, urtariletik abendura, ekainean berraztertuz. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 284 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren alokairua ordaintzeko hilean 105,00 € ematea, urtariletik abendura, ekainean berraztertuz. Etxebizitzaren mantenimenduko gastuetarako hilean 47,03 € ematea, urtariletik abendura, ekainean berraztertuz. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da. Arautegian egon diren aldaketak direla eta, % 100a alokairu prezioaren %70ari dagokio.
- 505 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimenduko gastuetarako hilean 71,77 € ematea, urtariletik abendura, ekainean berraztertuz. Ematen zaiona eskatutakoaren %98 da.
- 175 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimenduko gastuetarako hilean 38,58 € ematea, urtariletik abendura, ekainean berraztertuz. Ematen zaiona eskatutakoaren %96 da.

- 161 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimenduko gastuetarako hilean 84,56 € ematea, urtariletik abendura, ekainean berraztertuz. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 451 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimenduko gastuetarako hilean 69,78 € ematea, urtariletik abendura, ekainean berraztertuz. Ematen zaiona eskatutakoaren %97 da.
- 103 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimenduko gastuetarako hilean 39,39 € ematea, urtariletik abendura, ekainean berraztertuz. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 111 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimenduko gastuetarako hilean 59,99 € ematea, urtariletik abendura, ekainean berraztertuz. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 475 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren alokairua ordaintzeko hilean 210,35 € ematea, urtariletik abendura, ekainean berraztertuz. Etxebizitzaren mantenimenduko gastuetarako hilean 36,24 € ematea, urtariletik abendura, ekainean berraztertuz. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da. Arautegian egon diren aldaketak direla eta, % 100a alokairu prezioaren %70ari dagokio.
- 115 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimenduko gastuetarako hilean 67,44 € ematea, urtariletik abendura, ekainean berraztertuz. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 133 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimenduko gastuetarako hilean 88,83 € ematea, urtariletik abendura, ekainean berraztertuz. Ematen zaiona eskatutakoaren %95 da.
- 427 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren alokairua ordaintzeko hilean 225,40 € ematea, urtariletik abendura, ekainean berraztertuz. Etxebizitzaren mantenimenduko gastuetarako hilean 41,89 € ematea, urtariletik abendura, ekainean berraztertuz. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da. Arautegian egon diren aldaketak direla eta, % 100a alokairu prezioaren %70ari dagokio.
- 28 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimenduko gastuetarako hilean 70,27 € ematea, urtariletik abendura, ekainean berraztertuz. Ematen zaiona eskatutakoaren %90 da.
- 490 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimenduko gastuetarako hilean 90,17 € ematea, urtariletik abendura, ekainean berraztertuz. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 489 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimenduko gastuetarako hilean 54,95 € ematea, urtariletik abendura, ekainean berraztertuz. Ematen zaiona eskatutakoaren %80 da.

- 81 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimendu gastuak ordaintzeko laguntzetatik baja martxotik aurrera, beste herri batera bizitzera joango delako.

Berria

- 557 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimenduko gastuetarako hilean 43,34 € ematea, martxotik abendura, ekainean berraztertuz. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.

Aldaketa

- 34 zbk.dun esped.: 2004ko abenduaren 20an etxebizitzan konponketak (margotzea) egiteko eman zitzaion dirulaguntzaren aldaketa, lehen onartutako 1.315,84 €tik 1.293,84 €ra.

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpi terdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.